


NON DAGO BILBAO ARENA? NOLA IRITSI?


BILBAO ARENA gunea Miribillako auzo berrian dago, Askatasuna kaleko 13. zenbakian. Auzo moderno hau hiribilduko leku pribilegiatu batean eta erdigunetik oso gertu dago, eta, gainera, oso arin garatu da eta beharrezkoak diren zerbitzu guztiak ditu eskura. Bertan, Bizkaia pilotaleku berria, Miribillako merkataritza-gunea eta suhiltzaileen, udaltzainen eta anbulantzien udal-zerbitzuen egoitza berria daude.

Auzoak komunikazio-aukera bikainak ditu; izan ere, mota guztietako garraiobideak heltzen dira **BILBAO ARENA**ra edo inguruetara. A-8 autobidearen alboan dago, eta hirira ibilgailuekin etortzeko sarrera nagusirako sarbidea du. Horrela, autobidetik edo autobiatik ordubete baino gutxiagora dauden hiri hauekin, besteak beste, komunikatzeko aukera dago: Donostia, Gasteiz, Santander eta Logroño.



Cómo llegar al Bilbao Arena

Red de accesos en transporte público



Garraioen laburpena:

Metroa: Areatzako geltokia

FEVE eta aldiriak: Miribillako geltokia

Tranbia: San Anton geralekua


Autobusa: Lineak: 30,71, 11,22, 50, 56, 68, 75, 77, 85, G4 eta G7

Beste linea batzuk: 77, G7, 11, 22, 58, 75, 85, 40 eta 77

BILBAO ARENAk 250 plazako lurpeko aparkaleku bat du, eta inguruan erabilera publikoko aparkalekuak daude, Miribillako merkataritza-gunean, Bizkaia pilotalekuan, eta Miribillako gainazaleko aparkalekua.

NON DAGO BILBAO ARENA KLUBA?

Bilbao Arena



Sarrera zuzena dago Bilbao Arena Klubeko aparkalekutik